



IRRATI-MAIZTASUNA ETA KIMIOENBOLIZAZIO HEPATIKOA

Zertan datza irrati-maiztasun hepatikoa?

Gibeleko irrati-maiztasuna gibelean dituzun lesioak suntsitzeko teknika bat da. Horretarako, hodi metaliko bat sartuko dizute larruazalean, eta zaurira arte iritsiko da. Ekografoa edo OTA erabiliz posizio egokian dagoela egiaztatu ondoren, kable batera konektatzen da, eta kable horren bidez korrante bat emango zaizu (irrati-maiztasuna), eta horrek sortzen duen beroaren bidez lesioa erretzen du.

Zertan datza gibeleko kimioenbolizazioa?

Gibeleko kimioenbolizazioa tratamendu eraginkorra da gibeleko tumore-lesio batzuetarako. Kateter baten bidez, minbiziaren aurkako substantzia bat gaika utziko du lesioan, eta, aldi berean, tumorea elikatzen duten arteriak okludituko (enbolizatuko) ditugu, hura suntsitzen saiatzeko.

Nola prestatu behar dut probarako?

Gibeleko biopsia bat egiteko, honako hauek aurreikusi behar dira aldez aurretik:

- **Baraurik** egon behar da (solidoa eta likidoa) proba egin aurreko 8 orduetan.
- Gutxienez 24 ordu ospitaleratu behar dira, probaren ondoren izan daitezkeen konplikazioak kontrolatzeko.
- Diabetikoa bazara (ikus erantsitako orria).
- Antiagregatzaileak edo antikoagulatzaileak hartzen badituzu, jarraitu medikuak adierazitako jarraibidea.

Digestiboa/Hepatologia Unitatea: Telefono-zenbakia: 945007573

2024ko otsailean egina

IO-DIGESTIBOA-HEPATOLOGIA UNITATEA-04

Informazio gehiago nahi izanez gero, galdetu, zalantzarik gabe, arreta ematen dizuten profesionalei